

@@@AGINDUA, 2011ko ekainaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Trapagarango (Bizkaia) «Trapagaran» Musika Eskola Publikoari musika-espezialitateak gehitzeko baimena emateko dena.@@@

Trapagarango (Bizkaia) «Trapagaran» Musika Eskola Publikoak aurkeztu duen eskabidea aztertu da, non baimena eskatzen baita musika-espezialitateak gehitzeko.

Espediente hori Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek hari buruzko txostena eman dute.

Urriaren 27ko 289/1992 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan musika-irakaskuntza espezifikoa, arautu gabea, ematen duten ikastegiak —musika-eskolak— sortzea eta jardunean jartzea arautzen da (1993ko urtarrilaren 4ko EHAA). Eta dekretu horren II. kapituluaren ezartzen da irakasleei zein titulazio eskatzen zaien musika-eskoletan irakatsi ahal izateko.

Indarrean dauden arauak ikusita, eta arauz eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla kontuan hartuta, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Trapagarango (Bizkaia) «Trapagaran» Musika Eskola Publikoari baimena ematen zaio kanta korala eta biolontxelo espezialitateak irakasteko, 2011-2012 ikasturteko aurrera. Eskolaren kode-zenbakia 48011342 da, Trapagarango kultur-etxean dago, J.R. Olaso Jauregian, eta Udala da titularra.

Ikastetxe horretan irakaskuntza hauek emango dira: 2. eta 3. mailakoak.

Adarra:

Kantua: korala.

Tresneria sinfonikoa: biolontxelo.

2. artikulua.- Indarrean dauden arauak betetzera behartuta dago ikastetxea, agindu honen bidez baimendutako espezialitateetako irakasleen titulazioari dagokionez. Bestela, baliogabetu egingo da emandako baimena.

3. artikulua.- Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikingintzaren Kode Teknikoa bete beharko du ikastetxeak, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higie-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 30a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,  
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.